

Aitor Cerezo Baselga

## II. ERREPUBLIKA ALTZAN UDALETXEKO AKTEN BIDEZ

### 0. SARRERA

Ikertu behar dugun gai hau beharrezkoa da orain bizi dugun egoera politikoa ulertzeko. Orain ditugun arazo asko epe horretan jorratu ziren soluzioa emateko, edo orduan sortu zirelako, eta oraindik egunerokotasuna dutelako, esate baterako erregeak jokatzeko duen papera bai maila sozialean bai maila politikoan zalan-tzan jarri zen, edo Euskal Estatutua, garai honetan garatu zena eta Gerra Zibilean Espainiako gobernuak onartu zuena.

Ikerketa aurrera eramateko, lehenik eta behin, beharrezkoa da jakitea orain arte zer ikertu den, eta ikusten dugu nola inork ez duen jorratu zehatz-mehatz epe historiko hau proposatzen dugun lurraldean. Aurkitu ditugu beste herri batzuetara zuzendutako ikerketak, Urretxu eta Zumarraga<sup>1</sup> esate baterako, edo Altza aipatzen dutenak, Rodríguez Ranzek adibidez, baina orain arte ez dugu aurkitu libururik II. Errepublika Altzan ikertzen duenik.

Eta horretan saiatuko gara, II. Errepublikako garaiak Altzan izan zuen garrantzia ezagutzen eta, aldi berean, publikoari zabaltzen. Horretarako, ahaleginduko ga-

---

<sup>1</sup> Antxiñe Mendizabal Aranburuk Urretxu eta Zumarragari buruz ikertu egin du eta lortu zuen fruitua *II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan. Gerra Zibilaren atarian* liburuan argitaratu zuen (Oñati: Kutxa Fundazioa, 1996).

ra Altzako udalean egondako aldaketak ikertzen, udalak berak sortzen zituen akten bidez. Indar politikoak (alderdiak) ere ikertuak izango dira garai hartako aukera politikoak ezagutzeko. Egindako hauteskundeen bitartez zeintzuk ziren jorera politikoak jakingo ditugu. Ildo honetatik jarraituta, udalak jasan zituen gora behera guztiak ikusiko ditugu: horrela jakingo dugu bere lana nolakoa zen eta Errepublikarekiko zuen jarrera. Azkenik, saiatuko gara Altzako herritarren eguneroko bizitza aztertzen, berriz udaletxeko aktetan oinarrituz, uste dugulako akta hauek Altzako egunerokotasunaren isla direla.

Hala ere, akta hauek ahuleziak dituzte, eta gai ugari jasotzen dituztenez gaika sailkatzen ahal dira. Sailkapen honen isla udalak sortzen dituen komisioak dira.

Erabaki dugu udaletxeko aktak aztertzea ikerketa hau aurrera eramateko suposatzen delako lehenengo udal errepublikarren sorrera herriaren borondatea izan zela, eta horregatik bere aktetan jasotzen dena biztanle horien beharrak eta kezak direla. Akta hauek aztertzeke lehenbizi jakin behar genuen nola osatu zen lehenengo udal errepublikarra Altzan eta, gero, jakin behar genuen ea udal honek aldaketak izan zituen ala ez, kontuan izateko akta hauen homogeneitatea.

Errepublikan egindako hauteskundeak aztertu ditugu altzatarren sentsibilitate politikoa zein zen jakiteko eta nola aldatu zen garai honetan zehar. Egin dugun hurrengo gauza, udaletxearen lana aztertzea izan da. Hau udalak berak sortutako komisioen bidez egin dugu, uste genuelako komisioak udaletxearen isla zirela. Beranduago berreskuratu nahi izan dugu udaletxea eta altzatarren artean zeuden harremanak, hau, berriz, akten bidez, eskaera eta eskutitz ugari jasotzen direlako bertan. Bukatzeko, ikertu dugu udalak jokatu zuen papera Euskal Estatuaren garapenean.

Ez dugu II. Errepublikari jarraitu zitzaion Gerra Zibila jorratu, ikertu nahi izan dugulako, bereziki, II. Errepublikaren tarte historikoa, eta orduan izandako arazoak eta eman zitzaizkien soluzioak. Egia da lotuta dauden bi prozesu historiko direla, Francoren diktadura lotuta dagoen bezala, baina guk uste genuen epe historiko hau ikertu gabe zegoela eta argia eman nahi izan diogu ilun zegoen une historiko honi.

## 1. TESTUINGURU POLITIKOA

Lehenik eta behin, uste dut beharrezkoa dela esplikatzeko nola Espainia mailan alegatu zen erregimen politiko berri hau, baina aldi berean espainiarrentzat eza-guna<sup>2</sup>, ezartzera.

---

<sup>2</sup> Espainian lehenengo errepublika 1873ko otsailaren 11n ezarri zen 1874ko urtarrilaren 3a arte. 1931ko apirilaren 14an sortzen dena, bigarrena izango da.

Alfontso XIII.a zen Espainiako erregea 1931ko udal hauteskundeetan indar errepublikarrek gehiengoa lortu zutenean. Hau ikusita, erregeak bere koroa utzi zuen abdikatu gabe eta Espainia ere utzi zuen; beraz, Espainiako II. Errepublika jaio zen.

Alfontso XIII.aren erregetzan mugimendu asko izan ziren politika arloan, batez ere gizarte mailako gatazkengatik. Sail honetan sistema bipartidista bat lortu nahi zen, hau da, bi alderdi txandatzea boterean. Bi alderdi hauek Alderdi Kontserbadorea eta Alderdi Liberala ziren. Bere erregetzaren lehenengo hamarkadan, errepublikanismoaren indarberritze bat eman zen eta kultura saileko pertsonaia esanguratsuek aukera politiko hau babestu zuten, Benito Pérez Galdós esate baterako.

1907tik 1909ra arte, Antonio Maura izan zen Espainiako lehendakaria. Erregimen parlamentaria berritu nahi izan zuen, hauteskundeetan zegoen manipulazioa ezabatuz. Horretarako “Ley de Administración Local”<sup>3</sup> delakoa egin zuen kazikismoarekin amaitu nahian. Bere politikak laster ezagutu zuen liberalen eta errepublikarren oposizioa, Maurak aldetak goitik egin nahi zituelako; horregatik, ezker indarren batasuna bat egin zen eta, adibidez, “Ley de Administración Local” delakoa bertan behera gelditzea lortu zuten. 1909an Melillan izandako istilu batzuek Bartzelonatik brigada bat bidaltzera behartu zuten. Horrek Mauraren gobernuarekiko zegoen desadostasuna areagotu zuen eta sindikatuek greba orokorrera deitu zuten. Orduan Bartzelonan egondako istiluak Aste Tragikoaren izenez ezagutzen dira. Hildakoak egon ziren eta errepresioa ere latza izan zen, eta istiluen buruzagiak akabatuak izan ziren. Egondako errepresioagatik gobernuak kritika gogorak jaso zituen, bai Espainian eta bai nazioartean. Orduan oposizioak aukera ikusi zuen Maura boteretik at uzteko.

1910ean Alderdi Liberala<sup>4</sup> igo zen boterera eta José Canalejas Espainiako lehendakari izendatu zuten. Bere politikan elizarekin zeuden arazoak konpondu nahi izan zituen; horretarako “Ley del Candado” egin zuen. Lege honekin ezin zi-

---

<sup>3</sup> Lege hau ere “Ley de Descuaje del Caciquismo” izenarekin ezagutu zen.

<sup>4</sup> Alderdi batzuen izenak euskaratuak izango dira. Hala ere, alderdi eta elkarte batzuen izenak ez dira euskaratuak izango oso barneratuak daudelako gizartean, edo, alderantziz, ez direlako oso ezagunak eta izena aldatzea agian irakurlea nahasiko luke. Adibidez, PSOE, CNT edo UGT, bere horretan iraungo dira. Dena den, zerrendatxo bat prestatu dugu euskaratuak izan diren izenekin:

- Alderdi Liberala: Partido Liberal.
- Alderdi Komunista: Partido Comunista
- Euzko Abertzale Ekintza: Acción Nacionalista Vasca.
- Alderdi Erradikala: Partido Radical.
- Alderdi Erradikal Sozialista: Partido Radical Socialista.
- Ezker Errepublikarra: Izquierda Republicana.
- Ekintza Errepublikarra: Acción Republicana.
- Errepublikar Koalizioa: Coalición Republicana.
- Erriberako Langileen Federakuntza: Federación de Trabajadores de la Rivera.

ren Espainiara etorri beste orden erlijioso gehiago. Marokkon ere eskua sartu zuen eta 1912an eztabaidatzen hasi zen Frantziarekin Marokkori buruz existitzen zen akordioa. Ezin izan zituen bere helburuak bete urte berean Madrilen, 1912ko azaroaren 12an, anarkista batek Canalejas hil zuelako.

1912tik 1923ra sistema politiko hau usteldu zen arazoak zirela medio, adibidez gobernuaren desoreka, abstentzio elektorala, hauteskundeen manipulazioa, langile mugimenduaren garapena, terrorismoa, pistolerismoa, sozialismoaren eta errepublikanismoaren berpiztea, ejertzitoaren protagonismoa...

Egoera politiko eta sozial honek Primo de Riveraren diktadurara eraman zuen Espainia. Hura boterean egon zen 1923tik 1930ra arte, erregearen onespenearekin. Diktaduraren lehenengo bi urteetan "Confederación Nacional de Trabajadores" eta Alderdi Komunista ilegalizatu zituen, Direktorio Militar bat sortu zuen bera lehendakaria izanik, konstituzioa kendu zuen, alderdi politikoen jarduerak debekatu zituen eta militarrek sartu zituen gobernadore zibilarren ordean. Primo de Riverak bakarrik erantzuten zuen erregearen aurrean. 1925etik 1930era, kexa sozialak zirela medio, Direktorio Zibila sortu zuen Militarren ordean. Alderdi politiko bat sortu zuen, "Unión Patriótica" eta Asanblada Nazionala sortu zuen, nahiz eta asanblada honek inongo eginkizunik ez eduki<sup>5</sup>. 1927tik aurrera, ikasleek (Federación Universitaria Escolar), anarkistek (Federación Anarquista Ibérica) eta abertzale kataluniarrek (Companys eta Maciá, batez ere) diktadurari oposizioa egin zioten greba eta manifestazioen bidez. Herriak diktadurarekiko zuen desadostasuna areagotu egin zen 1929ko krisiarekin eta "Unión General de Trabajadores", PSOE, intelektualak eta alderdi zaharrak Primo de Riveraren erregimenaren aurka jarri ziren.

Azkenean, 1930eko urtarrilean erregeak Primo de Rivera kargutik kendu zuen. Erregeak sistema bipartidistara itzuli nahi zuen, baina diktadurari emandako onspenez geroztik bere sinesgarritasuna ezabatu zuen. Horregatik, oposizioan zeuden indarrak akordio batera iritsi ziren, "Pacto de San Sebastián", 1930eko abuztuan, eta Espainiako lehendakari berriaren, Berenger jenerala, 1876ko konstituzioa berreskuratzeko plana deuseztatzea lortu zuten. Aldi berean, Jacan eta Cuatro Vientosen militar errepublikarren saiakera eman zen. Berengerri Aznar almirantea jarraitu zitzaion, honen betekizuna lehenbiziko udal hauteskundeak eta gero orokorrak antolatzea zen. 1931eko apirilaren 12an egin ziren udal hauteskundeak, eta hauetan aukera errepublikarrak irabazi zuen hiri nagusienetan. Hau ikusita, erregeak Espainiatik alde egiten zuen eta 1931ko apirilaren 14an Espainiako II. Errepublika jaio zen.

---

<sup>5</sup> Italian Mussolinik erakutsitako bidea jarraitu nahi zuen, hau da, alderdi politiko bakar bat egotea eta Asanblada Nazional bat bere esanetara edukitzea.

## 2. ALDERDIEN OINARRI SOZIALAK

2.1. EUZKO ALDERDI JELTZALEA: Primo de Riveraren diktaturapean bere jardura politikoak bertan behera utzi behar izan zituen, eta bere barneko egitura berritzera behartuta egon zen bizirik irauteko. II. Errepublika jaio baino lehen-txeago "Comunión Nacionalista Vasca" eta EAJ aberrianoa elkartu ziren EAJ bateratua sortuz 1930eko azaroaren 16an. Era berean, abertzaleen komunitatean beste alderdi berri bat sortu zen, Euzko Abertzale Ekintza<sup>6</sup>. EAJko Gipuzkoako buruzagiak, orduan Policarpo Barrena zen alderdiko arduraduna herrialde honetan, erregimen berrian itxaropena ikusi beharrean, arrisku sozio-erlijiosoak ikusten zuten, errepublikak bi arlo hauetan eragin txarra izaten ahal zuelako. Mezu hau bultzatuz, EAJk bere burua eskaintzen zuen sozial ordenaren eta erlijioaren salbatazailerik gisa. Estrategia honi esker, jende asko besarkatzen du bere doktrina eta errepublikako lehenengo bi urteetan garapen handia ezagutzen du: 1931ren ekainaren 7rako berrogeita bi herri eta hirietan zegoen ezarrira eta hauetako bat Altxa zen<sup>7</sup>. Garapen geografiko honi lotuta egoitzak eta elkarteak sortzen dira, batzokiak esate baterako. Hazkundearen lehendabiziko momentu hau igaro eta gero garapenaren abiadura mantsotzen da; hala ere, hamabost herri gehitzen dira lehenengo zerrendara<sup>8</sup>. Faktore hauek dira EAJren garapena mantsotzen dutenak:

- Alderdiaren jarrera 1934ko urriko iraultzan.
- "Derecha Vasca Autónoma"-ren sorrera.
- Madrildik jartzen ziren eragozpenak Euskal Estatutuaren proiektua garatzeko.

Zailtasunak zailtasun, II. Errepublikaren garaian Gipuzkoan zeuden alderdi guztietatik EAJ zen presentzia handiena zuena, eta herrialde honetan dauden laurogeita bederatzi herri eta hiritik hirurogeita seitan lortu zuen presentzia izatea.

Alderdi honetan oso garrantzitsuak izan ziren bere inguruan sortutako taldeak, hauen artean Euzko Langileen Alkartasuna, Euzko Nekazarien Bazkuna, Emakume Abertzale Batza eta Mendigoizaleak ziren esanguratsuenak.

- Mendigoizaleak taldeak, EAJren doktrina baserri eta herri txikietara eramane zuten. Bere barruko organizazioa militarrekin antza zuen kapitainak zituztelako eta formazioak eta desfileak egiten zituztelako.

---

<sup>6</sup> Alderdi honen nondik norakoak berari dagokion kapituluaz aztertuko ditugu.

<sup>7</sup> Beste herriak hauek ziren: Andoain, Antzuola, Aretxabaleta, Astigarraga, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Zestoa, Deba, Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Getaria, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Lezo, Arrasate, Mutriku, Olaberria, Oñati, Orio, Ormaiztegi, Oiartzun, Pasaia, Plentzia, Orereta, Donostia, Segura, Tolosa, Bergara, Ordizia, Urretxu, Zaldibia, Zarautz, Zumarraga eta Zumaia.

<sup>8</sup> Abaltzisketa, Albiztur, Amezketeta, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Zegama, Elgeta, Gabiria, Idiazabal, Irura, Mutiloa, Orendain, Salinas eta Usurbil.

- Emakume Abertzale Batza: 1935ean sortu zen eta bere eginkizunak ez ziren bakarrik akto benefikoak eta kulturalak egitera mugatzen, baita ere alderdiaren doktrina erakusten zieten belaunaldi berriei.
- Euzko Langileen Alkartasuna eta Euzko Nekazarien Bazkuna: suposatzen da hauek organizazio independenteak zirela baina II. Errepublikan harreman estuak mantendu zituzten EAJrekin. Harreman hauek lau arlotan ikus daitezke. 1.- ELAren eta ENBren garapenak EAJren interesak sortu zuen. EAJtik pentsatzen zen beharrezkoa zela euskal langileria babestea, alderdiaren eraginpetik alde egin ez zezaten. 2.- Organizazio hauek bat zetozen EAJrekin, ideologian eta estrategian. Orden soziala defendatzen zuten eta gatazka interklasista leuntzea nahi zuten. Beraien helburu nagusia sistema sozial berri bat ezartzea zen, sozial-kristau eta euskal ideologian sustatua, justizia soziala eta propietate pribatua ziurtatuz. 3.- Pertsona askok zeuden afiliatuta hiru organizazio hauetan. 4.- Sindikatuetako parte hartzaileak askotan EAJren zerrendetan zeuden apuntatuta, egoitza berberak zituzten eta jarduera asko elkarrekin egiten zituzten.

ELAri eta ENBri esker alderdi interklasista bat izatea lortu zuen. Hala ere, esan behar da EAJn bakarrik afiliatzen ahal zirela euskaldunak zirenak edota Euskal Herrian hamar urte baino gehiago bizitzen zeramatenak, horrela irizpide etnikoari ere garrantzia ematen zitzaion alderdi honetan.

2.2. EUZKO ABERTZALE EKINTZA: 1930ko azaroaren 30ean sortu zen eta Euskadiko indar ezkertiarren onespina izan zuen. Alderdi honen sorrera Euskadiko indar abertzaleen berpiztearekin lotu behar dugu. Autodeterminazioa defendatzen zuen eta bat egiten zuen Euskal eskubideen alde borrokatzen zuten alderdiekin, ez bakarrik alderdi euskaldunekin, alderdi espainiarrekin ere bat egiten ahal zuten hauek abertzaleen eskubideak onartzen baldin bazituzten. Alderdi interklasista ere izan nahi zuen eta arazo etnikoetan edo erlijiosoetan ez zuten erreparatzen. Bere afiliatuak batzen zituena Euskal Herria aberri gisa onspina lortzea zen. Alderdi errepublikarra, akonfesionala, Euskal aberriaren unitatea defendatzen zuena eta inmigranteen integrazioa bilatzen zuena zen.

1935. urtean, alderdia berriketa bat egiten saiatu zen eta “Partido Laborista Vasco” izena jarri nahi izan zioten, baina irailaren 29an egindako asanbladan aukera hau baztertuta gelditu zen. 1936ko ekainean, programa berri bat burutu zuten eta honetan alderdi ezkertiar eta abertzalea bezala agertzen zen, antikapitalista eta sozial-erreformista aldi berean.

EAEk batez ere Bizkaian izan zuen indarra, Gipuzkoan II. Errepublika baino lehen Arrasaten, Pasaian, Donostian eta Eibarren bakarrik zegoen ezarrita. Ikusten dugu, beraz, nola Gipuzkoan kostata lortu zuen herritarrengana ailegatzea eta

bakarrik leku industrializatuetara iritsi zen. II. Errepublika sortu eta gero Altzara, Astigarragara, Berastegira, Ezkiora, Ikaztegieta, Irurara, Legazpira, Ordizia-  
ra, Urretxura eta Zumarragara zabaltzen da.

Gipuzkoan, alderdiko arduradunak, Komite Erregional bat osatu zuten eta par-  
tehartzaileak Ignacio Uria (lehendakaria), Angel Urdangarin (idazkaria), José Ma-  
ría Imaz (diruzaina), Fernando Zuloaga, Mateo Múgica eta Luis Goñi (bokalak az-  
keneko hiru hauek) ziren. Asanbladak eta komite munizipalak osatu zituzten eta,  
nazional mailan, asanblada nazional baten bidez antolatzen ziren.

Bukatzeko, esan behar dugu Gipuzkoan onespén gutxi izan zuela, herrialde  
honetan bere oinarri elektoralak %1,63koa<sup>9</sup> zen.

2.3. ALDERDI ERRADIKALA: “Unión Republicana”-ren desegituraketaren  
ondorioz sortzen da. Bere abiapuntua egin zituzten bi asanbladatan bilatu behar  
dugu, hauek 1931ko uztailaren 12an eta 26an egin ziren. Azaroaren 15ean egin zu-  
ten bere lehenengo Asanblada Probintziala eta bertan Altzako delegatuek hartu  
zuten parte. Ikusten dugu, beraz, nola bere sorreraren lehendabiziko momentu-  
tik Altzako herritarren onespén lortu zuen. Asanblada honetan, komite bat hau-  
tatu zuten eta Manuel Zuazola (lehendakaria), Julián Bellido (lehendakariordea),  
Joaquín Galino (diruzaina), Tomás Carasa, Roque Hortola, Mariano Rulera, An-  
gel Ventosa, Teódulo García, José Altuna eta Vicente Errasti (azkeneko zazpi hauek  
bokalak ziren) hautatuak izan ziren.

Errepublikaren bigarren biurtean bi fenomeno ematen dira alderdian. Alde ba-  
tetik, gobernuan izan zuen erantzukizuna, bai Espainia mailan, bai maila probin-  
tzialean, bietan lagundu zuen bere garapenean eta beste herri batzuetara ailega-  
tu zen. Bestetik, gobernuak eskuinera hartu zuen bihurtzean, komite eta jarrai-  
tzaile asko gelditu ziren. Pixkanaka bere indarrak ahulduta ikusiko dira errepu-  
blikako azkeneko urteetan eskuinera hartutako bideetatik<sup>10</sup> eta ustelkeria kasuengatik.  
Adibidez, Strauss eta Nombela kasuengatik<sup>11</sup>. Bere beherakada hain nabarmena  
izango da, non 1936ko hauteskunde orokorretan alderdi honen hautagairik ez di-  
ren egongo.

2.4. ALDERDI ERRADIKAL SOZIALISTA: Alderdi honen delegazioaren so-  
rera Gipuzkoan Komite Probintzial baten bidez izan zen 1932ko martxoaren 12an

---

<sup>9</sup> Rodríguez Ranz, José Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II. República*. Donostia: Fundación Social y Cultural Kutxa, 1994.

<sup>10</sup> Honek ezker alderdi errepublikanoen kritikak eragin zituen.

<sup>11</sup> Bi hauek Alderdi Erradikalaren parlamentariak ziren Espainiako gobernuan eta bere kargua erabili zuten kontrabandoa egiteko. Esaten ahal da beraiek eman ziotela izena estraperloari.

egindako asanblada batean, eta bertara Altzako delegazio bat joan zen<sup>12</sup>. Hala ere Rodriguez Ranzek<sup>13</sup> dio herri batzuetako jarraitzaileak bakarrik alderdiaren doktrina zaleak zirela eta ez zutela komite egonkorrik osatzen, eta hauen artean Al-tza zegoen. Nahiz eta Gipuzkoako hiri esanguratsuetara iritsi<sup>14</sup>, bere barne egituran izandako eszizioak bere indarra murriztu zuen bere jarraitzaile askok beste organizazio berrietara<sup>15</sup> joan zirelako.

2.5. EZKER ERREPUBLIKARRA: 1933ko hauteskundeetako porrota eta gero, ezkerreko indarrek estrategia berri bat beharrezkoa zela pentsatu zuten. Estrategia hau indarrak elkartzea zuen helburu eta, horregatik, “Partido Republicano Radical Socialista Independiente” eta Ekintza Errepublikarrak beren indarrak batzea proposatu zuten. Elkarketa honen ondorioz Ezker Errepublikarra jaio zen<sup>16</sup>. Gipuzkoako lehenengo talde egonkorra Donostian eratu zen 1934ko martxoaren 25ean. Bere baitara hurbildu ziren, ez bakarrik lehendik PRRSira eta EEra zeuden afiliatuak, baizik eta jende berri asko, eta horregatik bihurtu zen Gipuzkoako alderdi errepublikar nagusienean<sup>17</sup>.

Ezker Errepublikarraren egoitza Herreran, Altuna-enean zegoen.

2.6. ALDERDI KOMUNISTA: Alderdi honen indarrak Gipuzkoan oso ahulak ziren. Bakarrik hamar herrietan lortu zuen organizazio bat edukitzea: Altzan (Molinaon, Eskalantegi etxean zuten egoitza, Trintxerpen ere egoitza bat zuten), Eibar, Hondarribia, Irun, Lezo, Pasaia, Orereta, Donostia, Urnieta eta Zarautzen. Beste herri batzuetan Andoain, Bergara, Ordizia, Billabona, Beasain, Mutriku, Deba, Elgoibar, Plentzia eta Arrasaten jarraitzaileak zituen, baina komite egonkorrik osatu gabe.

1935eko ekainean Eusko Alderdi Komunista sortu zen, baina esan behar da ez zutela programa propiorik eraiki eta Espainiako Alderdi Komunistaren doktrina jarraitzen zuen, sindikal arazoei lehenetsuna emanez. Ez zuten lortu gipuzkoar gizartearen onespena, bere diskurtsoa, erlijioaren kontra, EAJri egiten zizkion kritikak, bere erradikalizazioa, ez ziren gipuzkoarregana ailegatu.

---

<sup>12</sup> Donostia, Irun, Ordizia, Hondarribia, Orrio, Tolosa eta Billabonako delegazioak ere joan ziren.

<sup>13</sup> Rodríguez Ranz, op. Cit, p.115

<sup>14</sup> Arrasate, Orereta, Pasaia, Elgoibar, Deba eta Eibarrera ere iritsi zen.

<sup>15</sup> Alderdi Erradikal Sozialistatik, Ezker Errepublikar Erradikal Sozialista eta Alderdi Erradikal Sozialista Independentea sortu ziren.

<sup>16</sup> Galizian ere ORGAK lehenengo bi alderdiekin batu zen.

<sup>17</sup> Donostia, Orereta, Irun, Eibar, Hernani, Tolosa, Pasaia, Beasain, Azpeitia, Bergara, Oñati, Zumaia, Hondarribia, Mutriku, Arrasate, Zumarraga, Urretxu, Ordizia, Legazpia, Ormaiztegi, Plentzia, Azkoitia, Elgoibar eta Altzara ailegatu zen bere influentzia eremua.



2.7. PSOE: II. Errepublika baino lehen, ez zegoen oso ezarrita Gipuzkoan. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, Donostian eta Eibarren bakarririk aurkitzen ahal dugu. XX. mendea aurrera joan ahala, zabaltzen joan zen eta Tolosara, Irunera, Pasaiara, Errenteriarra eta Plentziara ailegatu zen. II. Errepublika ezarri zenean, PSOEn indarra areagotu egin zen eta kide ugari lortu zituen. Hain zuzen ere, Elgoibarrera, Hernanira, Beasainera, Bergarara eta Ordiziara iritsi zen 1932ko uztaila baino lehen. Garapen honen ondoren, PSOEn ezarpen indarra mantsotu egin zen. 1932tik geroztik, bakarrik Debara ailegatu da 1934an. Bere ideologiaren zabalpen sareak ere eraiki zituen, “El socialista” eta “La lucha de clases” aldizkariekin eta UGT sindikatuarekin. Sindikatu honen bitartez iristen zen PSOEn ideologia langileenganaino.

### 3. II. ERREPUBLIKAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ALTZAN

#### 3.1. 1931ko apirilaren 12ko Udal Hauteskundeak

Hasteko, esan behar dugu hauteskunde hauek 1907ko abuztuaren 8ko lege elektoralean oinarritu zirela, eta bertan jasotzen eta agintzen zen bezala egin ziren<sup>18</sup>.

---

<sup>12</sup> 1931ko martxoaren 16an, “La Gaceta de Madrid”-en 75. alean, 1442. orrialdean argitaratutako 946. Errege Dekretuaren bidez, ezagunarazten zen apirilaren 12an hauteskunde municipalak egingo zirela. Dekretuan erraten zen hauteskundeak aurrera eramateko 1907ko abuztuaren 8ko lege elektorala kontuan hartuko zela: “Las elecciones de ayuntamientos se celebrarán (...) el día doce del próximo mes de abril, con arreglo al (...) procedimiento señalado por la ley electoral de ocho de agosto de 1907 en toda su pureza”. Eskrutinioa apirilaren 16an, ostegunean, egingo zen. Bi hautagai baino gehiago berdinduta geldituko balira, zozketa bidez egingo zen izendaketa. Probintzia bakoitzeko gobernadore zibilak ezagutzera eman behar zuen herri bakoitzaren zatituta distritutan zatitu behar ziren eta zenbat zinegotzi hautatu behar ziren distrituko. Hau 1931ko maiatzaren 30ean egin zuen gobernu zibilak, zirkular baten bidez, eta “Boletín Oficial Extraordinario de la Provincia de Guipúzcoa”-n argitaratu zen hurrengo egunean. Honetan, Altzari dagokionez, bi distrituetan zatitzen zen eta sei zinegotzi hautatu behar ziren distrituko, hala ere ez da zehazten zein auzo sartzen ziren distritu bakoitzean. 1907ko abuztuaren 8ko lege elektoralari dagokionez esan behar da “La Gaceta de Madrid”-en argitaratu zela 1907ko abuztuaren 10ean. Zortzi tituluz osatuta dago eta guztira laurogeita zortzi artikulua ditu, gehi disposizioak. Lege honetatik aspektu garrantzitsuenak aukeratu ditugu azaltzeko:

- Lehenengo artikuluan esaten da hautatuak izan daitezkeela 25 urtetik gorako gizonezko espainiar guztiak.
- Bigarren artikuluan esaten da bakoitzak botatzea derrigorrezkoa zuela bere distrituan egiten zen bozketa bakoitzean.
- Laugarren artikuluan esaten da hautatuak izan daitezkeela 25 urtetik gorako gizonezkoak, beren eskubide zibil guztiak dituztenak, hau da, espetxeratu bat adibidez ezingo luke botatu.
- Hogeita bederatzigarren artikuluan esaten da ahal den baino hautagai gutxiago dagoenean, aurkeztu diren hautagaiak automatikoki hautatuak izango zirela bozketarik egin behar gabe.
- Laurogeita laugarren artikulua laugarrenarekin dauka harremana esaten duelako botatzen ez duena zigortuta izango dela.

Altza bi distrituetan banatu zen<sup>19</sup>, ez da zehazten zein auzo zegoen sartuta distritu bakoitzean, eta distritu bakoitza orain ezagutzen dugun “Colegio Electoral”-etan zatituta zegoen. Lehenengo distrituan “Colegio Electoral” bakarra zegoen, baina bigarrenean bi, horregatik bi sekzioetan zegoen zatituta. Apirilaren hamaseian egin ziren hauteskundeen eskrutinioa. Lehenengo distrituan emaitzak hauek izan ziren:

Ricardo Tejada Duque de Estrada	203 boto
Felipe Zurutuza	201 boto
José Iruretagoyena	200 boto
Pedro Ayesta	197 boto
Manuel Sasiain	186 boto
Celestino Atorrasagasti	167 boto
José Salvador	49 boto

Bigarren distritua bi sekzioetan zegoen zatituta. Emaitzak hauek izan ziren:

	1. sekzioa	2.sekzioa	guztira
José Juanes	78	127	205
José Casares	95	105	200
José Manuel Beretarbide	69	119	188
Pablo Landa	81	107	188
Gaspar Cardona	99	81	180
Juan Iriarte	105	77	182
Victoriano Moranchel	95	81	176
Santos Urbietta	64	110	174
Felipe Guillén	100	74	174
Santiago Casares	95	14	109
Ignacio Eneverreaga	83	10	93
Victoriano Roteta	76	12	88
Pedro Alcorta	19	45	64
Anselmo Zugasti	54	9	63
José Calasanz	17	43	60
Julián Trueba	4	4	11
José Salvador	0	1	1

---

<sup>19</sup> Garai honetan ez dugu aurkitu zein zen distrituen banaketa, baina 1909an ere bi distritu zeuden eta hauek “Concejo-Casco” eta Antxo ziren. Bi distritu hauek Kasko, Sarrueta, Herrera, San Markos, Mirakruz, Molinao eta Antxo osatzen zuten.

### 3.2. 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorrak

Ekainaren 22an elkartu zen probintziako zentsu elektoraleko junta hautagaien zerrenda publikoa egiteko. Junta honen buruan José Antonio de la Campa jauna zegoen eta berarekin batera Vicente Ferraz (estatistikako arduraduna), Rodríguez Rey (notarioa) eta Aniceto Rezola jaunak zeuden. Izendatutako hautagaiak eta beraien emaitzak Altzan honako hauek izan ziren:

Antonio Pildain Zapiain (independentea)	534
Julio Urquijo Ibarra (tradizionalista)	528
Jesús María Leizaola Sánchez (EAJ)	531
Rafael Picavea Leguía (independiente)	530
José María Amilibia Machimbarrena (errepublikanoa)	514
Juan Usabiaga Lasquibar (errepublikanoa)	522
Enrique de Francisco Jiménez (sozialista)	516
Justo Gárate Arriola (EAE <sup>20</sup> )	513

Hauetz gain, beste hautagai batzuk ere aurkeztu ziren hauteskundeetara eta beraien emaitzak hauek izan ziren<sup>21</sup>:

Juan Astigarribia (komunista)	24
Jesús Larrañaga (komunista)	24
Luis Zapirain (komunista)	24
José Bullejos (komunista)	22
Nicolás de Urgoiti <sup>22</sup>	9
Luis Castro	9

Esaten ahal dugu hautagaiak hiru bloketan aurkeztu zirela hauteskundeetara: lehenengoa, eskuin indarrak batzen zuena; bigarrena, ezker indarrak batzen zuena; eta, azkena, komunistak. Hona hemen hiru blokeen programa laburbilduta.

Lizarrako estatutuaren defendatzaileen kandidatura:

Antonio Pildainek (Gasteizko katedralaren kanonigoa), Julio Urquijok, Rafael Picaveak, eta Jesús María Leizaolak osatzen zuten. Errepresentazio hau herriak bultzatua zen, neutroa deklaratu zen eta gipuzkoar herrien kezka arduratzea zuen helburu. Bere programa Euskal Herriko askatasuna eta eliza katolikoaren doktrina defendatzea zituen helburu, egin behar zen konstituzio berrian.

<sup>20</sup> Euzko Abertzale Ekintza.

<sup>21</sup> Beti Altzako emaitzak dira.

<sup>22</sup> Urgoitik eta Castrok ezkertiar indarrekin aurkeztu nahi ziren, baina ez zuten lekurik izan.

Ezkertiar indarren aukera (errepublikarrak, sozialistak eta EAE):

Juan Usabiagak, José María Amilibiak (errepublikarrak) Enrique de Franciscok (sozialista) eta Justo Garatek (EAE) osatzen zuten. Beraien programak hezkuntza eta langileen eskubide ekonomiko eta sozialei buruz hitz egiten zuten.

Komunistak:

Oso jende gutxi botatu zuen hauen alde, bakarrik Altzan eta Pasaian lortu zituzten 20 boto baino gehiago.

Honekin guztiarekin hona hauteskunde hauen emaitzak Altzan:



Emaitza hauetan ikusten ahal dugu oso lehiatua dagoela lehenengo postua Altzan, bakarrik 58 botoen aldearekin irabazi zuen Lizarrako Estatutuaren Defendatzaileen Kandidaturak. Horregatik, esaten ahal dugu ezker aukerak ere indar asko duela. Gainera, ez dugu ahaztu behar komunistek ere badituztela boto batzuk, ia ehun.



Ikusten ahal dugun bezala Euskal Herri mailan ere ematen da Altzan ikusten dugun joera, Lizarrako Estatutuko hautagaiak gailentzen dira. Hemen lortzen duten aldea nabarmenagoa da, botoen %57,84 lortzen dute eta Ezkerreko Koalizioa %41,16. Komunistek bakarrik %1 lortu zuten, Euskal Herrian onespren handirik ez zutela erakutsiz.

### 3.3. 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorrak

1931an egin zen bezala Gipuzkoako hauteskunde erroldako junta, hauteskundeak baino egun batzuk lehenago bildu zen hautagaien zerrenda publikoa egiteko. 14an bildu zen eta hautagaiak honako hauek izan ziren, Altzan lortutako emaitzekin batera:

#### Errepublikar Koalizioa:

Juan Usabiaga (erradikala)	411
Nicolás Bizcarrondo Gorosabel (Ekintza Errepublikarra)	371
Manuel de la Torre Egia (Errepublikarra federala)	293
José Miguel Gomendio Larrañaga (Gipuzkoako Zentro Errepublikarren Federazioa)	284

#### Euzko Alderdi Jeltzalea:

Juan Antonio Irazusta	863
Telesforo Monzón	899
Jesús de Leizaola	1342
Manuel de Irujo	904

#### Estatutista Independentea:

Rafael Picavea Leguía	1192
-----------------------	------

#### Alderdi Sozialista:

Enrique de Francisco	272
Julia Álvarez	256
Federico Angulo	247
Toribio Echeverría	266

#### Alderdi Komunista:

Jesús Larrañaga	87
Ricardo Urondo	83


#### “Unión de Derechas”:

- “Renovación Española”:

Ramiro de Maeztu	224
------------------	-----

•Alderdi Tradizionalista:

Agustín Tellería	225
Antonio Paguaga	230
María Rosa Urraca Pastor.	221



Hauteskunde hauetan alderdien politikak gehiago bereizten dira. 1931an Lizarrako Estatutuaren Kandidatura berean Picavea, EAJ eta Tradizionalistak aurkitzen genituen bateratuta; orain, aldiz, banatuta aurkezten dira. Banaketa honek EAJ ateratzen da indartuta eta oso emaitza onak lortzen ditu, 4008 bototara iritsiz. Estatutista bezala gelditzen den bakarrak, Picavea, nahiko emaitza onak lortzen ditu, Altzan hirugarren aukera politikoa bezala geldituz. Nahiz eta aukera hori defendatzen bera bakarrik gelditu, uste genuen baino emaitza hobeak lortzen ditu. Eskuineko indarrek, ordea, ez dituzte jasotzen horrenbesteko arrakasta eta nahi baino boto gutxiago lortzen dituzte. Gauza berdintsua gertatzen da ezkerreko alderdiekin, Errepublikarrak, Sozialistak eta EAEk kandidatura berean aurkeztu ziren 1931ko hauteskunde orokorretan, eta orain banatuta aurkezten direla, emaitza desberdinak lortzen dituzte. Errepublikar Koalizioak emaitza onak lortzen ditu, eta bigarren aukera politikoa bihurtzen da Altzan. PSOEek bere partetik ere nahiko emaitza pozgarriak jasotzen ditu, eta mila boto baino gehiago lortzen ditu. Txanponaren beste aldean EAE da, oso emaitza kaxkarrak lortzen ditu, 60 boto baino ez. Oroitu behar gara erraten genuela Gipuzkoan onespene gutxi lortu zutela, Bizkaian zutela indar gehiena. Azkenik, Alderdi Komunista gelditzen zaigu, hauek itxaroten genituen emaitzak lortzen dituzte, 1931n boto gutxi batzuk lortu zituzten eta orain emaitza berdintsuak lortzen dituzte.

Orain alderdien programa politikoak ikusiko ditugu laburki, beren eskaerak zeintzuk ziren jakiteko.

EAJren programa politikoa bost puntu zituen:

- Euskal soberania osoa proklamatzeko.
- Euskal Estatutua euskal konstituzioa gisa ezartzea.
- Madrilgo Errepublikako gobernuak elizaren aurka egindako lege guztiak ezabatzea.
- Errepublikaren konstituzioaren laugarren artikulua martxan jartzea.
- Amnistia politiko-soziala eskatzea.

Bost puntu hauekin batera, dudarik gabe azaroaren 5ean egin zen Euskal Estatutuaren proiektuaren onarpena EAJri mesede egin zion gero, hauteskunderetan, emaitza onak lortzeko.

“Unión de Derechas” bi alderdien batuketa zen: alde batetik, “Renovación Española” eta, bestetik, Alderdi Tradizionalista. Hauek beren kanpaina mitinen bidez egin zuten, eta ia Gipuzkoako herri guztietan egon ziren. Mitin hauetan Errepublikaren gobernuaren kontra hitz egiten zuten: apaizen kontra zeudela, elizak erretzen zituztela, Jesuiten disoluzioa eragin zutela, Espainiaren moralak usteltzen zutela, eskolak laiko bihurtu zituztela...

Errepublikar koalizioa: Koalizio hau alderdi errepublikar askoren batuketa zen, esate baterako bertan Alderdi Erradikala, “Partido Federal”, Ekintza Errepublikarra, “Federación de Partidos Republicanos” eta “Izquierda Radical Socialista” aurkitzen ahal genituen. Bere programa politikoa autonomien sorreran eta sozio-errepublikar legeak sortzean zetzan. Gainera, Azañaren onespena zuten.


“Partido Socialista Obrero Español”: Alderdi honen zerrendetan aurkeztu ziren hautagaiei buruz honako hau esaten ahal dugu: De Franciscok 1931n 21.000 boto baino gehiago lortu zituen eta hau alderdi honentzat lorpen handia izan zen, bazeudelako garai hartan PSOEek baino tradizio gehiago zuten alderdiak. Julia Alvarezek Nafarroan oso lan txukuna egin zuen Erriberan Erriberako Langileen Federakuntza bultzatzen. Federiko Angulok Donostian “Asociación de Periodistas de la UGT” sortu zuen, eta Toribio Echevarriak parte hartu zuen 1934ko urrian izandako istiluetan, Eibarren batez ere.

Hauteskunde hauek Euskal Herrian EAJk irabazi zituen, hona hemen grafikoki emaitzak Euskal Herri mailan:

---

<sup>23</sup> Artikulu honek hizkuntza erregionalak babesten zituen: erraten zuen gaztelera zela Errepublikaren hizkuntza ofiziala, baina beste hizkuntzei eraso egin gabe.

<sup>24</sup> Aurrerago hitz egingo dugu Euskal Estatutua eta Altzako udaletxeak bere alde egindako lanaz.



Beraz, ikusten ahal dugu Altzako emaitzekin alderatuta, nahiko desberdinak izan zirela emaitzak: bakarrik ikusten da bietan EAJk erraz irabazten duela. Beste alderdiak, PSOE, “Unión de Derechas” eta Errepublikar Koalizioa ez dira hurbiltzen EAJk lortu zituen boto kopurura, eta alde dago Altza eta Euskal Herrian emaitzen artean. Altzan Errepublikar Koalizioa da bigarren indarra, PSOE hirugarrena eta “Unión de Derechas” laugarrena. Picaveak Euskal Herri mailan ez zuen emaitza aipagarriarik lortu. Euskal Herri mailan, beraien artean ere alde dago, “Unión de Derechas” da boto gehien lortu zituena; PSOE, berriz, ikusten da oraindik hazten ari den alderdia dela. Errepublikar Koalizioa ez zituen oso emaitza onak lortu eta beste alderdien lorpenak ia testimonialak dira.

### 3.4. 1936ko hauteskunde orokorrak

Hauteskunde hauek Espainia mailan “Frente Popular”-ek, ezker indarreko koalizioa, irabazi zituen. Ezker indarren garaipen honen ondorioz, eskuineko indarrak konspiratzen hasi ziren gobernu honi amaiera emateko.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta eskuineko indarrak aldentzen joan ziren 1934ko greba iraultzaileagatik. Greba hau larrialdi egoera agindu zuen Espainiako gobernuak, “Se lee telefonema del Sr. Gobernador dando cuenta de haberse declarado el estado de alarma en todo el territorio nacional”<sup>25</sup>.

<sup>25</sup> Donostiako Udal Artxiboa: Altzako Udaletxeko aktak: A 01- 01 116L (1934ko abuztutik- 1935eko irailera).



“Agitación insurgente / Firmó anoche el presidente de la República el decreto restableciendo el estado de alarma ante los actuales acontecimientos. / Los revolucionarios no tienen ni corazón ni coraje, dijo anoche el ministro de hacienda a los periodistas”

Hauteskunde hauetan eskuineko indarrek Koalizio bat egin zuten “Coalición Contrarrevolucionaria” izenarekin Gipuzkoako probintzian aurkezteko, “Comunión Tradicionalista”, “Unión Regionalista Guipuzcoana” eta “Derecha Vasca Autónoma” osatu zuten, baina ez zuten lortu programa bateratu bat lantzea, eta lis-karrak eta arazoak sortu ziren beraien artean, baina, hala ere, elkarrekin aurkeztu ziren.

Ezkerreko indarrek ere beraien Koalizioa egin zuten eta “Frente Popularra»-ren izena eman zioten. Bere baitan ezkerreko alderdi eta sindikatu asko aurkitzen ziren, esate baterako Ezker Errepublikarra, Errepublikar Batasuna, “Ezquerria Vasca Federal”, PSOE, Alderdi Komunista, UGT, eta Euzko Abertzale Ekintza.

“Coalición Contrarrevolucionaria”-k bere programa politikoan gizartearen bipolarizazioan egiten zuen indarra, beste alderdi politikoak irainduz. “Frente Popular”-aren eta EAJren programak kritikatu zituen. “Frente Popular”-aren programaren aldarrikapenak erradikalizatu zituzten eta alderatu zituzten bakoitzak ordezkatzeko zituen baloreak, esate baterako esklabotasuna, galbide morala eta materiala, kaosa, zibilizazioaren hondorapena, langabezia, gosetea, iraultza, komunismoa, marxismoa, antikristautasuna, anarkia, langileen diktadura, separatismoa, pistolismoa, odola, malkoak, ateismoa eta guda (“Frente Popular”-ak erreprezentatzen zituen baloreak), eta bizitza, kristau zibilizazioa, orden soziala, familia, autoritatea, justizia, aberria, bakea, lana, Espainia eta erlijioa (“Coalición Contrarrevolucionaria”-ren baloreak). EAJren aurka ere bazituen esatekoak. Zentrismoa praktikatzeko leporatzen zioten, “Coalición Contrarrevolucionaria”-k iraultzaren alde edo kontra egon behar zuela uste zuten (bipolarizazioa), ez zuten onartzen alderdi bat erdian gelditzea. Estrategia honekin EAJ ahultzea espero zuten, uste zutelako 1936ko egoera soziala ez zuela zentrismorik onartzen, iraultzaren alde ez zegoen norbait, derrigorrez egon behar zuen iraultzaren aurka. Gainera, konplizitatea leporatzen zioten 1934ko iraultzarekin eta elizaren hierarkiak ez zituztela onartzen ere erraten zuten. Erasoaren beste puntu bat ekonomia izan zen. Euskadiren independentziak ekonomikoki oso ondorio txarrak ekarriko lituzke, burgesiaren bizimodua arriskuan jarritz. Horrela, talde sozial horren baitan ikara sortu nahi zuten beraien botok eskuratzeko.

EAJk bipolarizazioaren aurrean bere esparru politikoa aldarrikatu zuen. Bere leloak horrela zioen: Kristau zibilizazioaren alde, justizia sozialaren alde eta Eus-

---

<sup>26</sup> Koldo Mitxelena: Hemeroteca, La Voz de Guipúzcoa: 1934ko irailak 23.

kal askatasunaren alde. "Coalición Contrarrevolucionaria"-ren esparru elektoral bera zuten, hau da, afiliaturik ez dagoen kristau hauteslea. Sozio-kristau justizian oinarrituta dagoen zibilizazioa defendatzen du. Populista eta progresista bezala agertu nahi du gizartearen aurrean eta txiroaren, langilearen, arrantzalearen eta nekazariaren laguna bezala aurkezten du bere burua. Badaude, hala ere, bi hutsune bere programan. Lehenengoa, ez dituztela egiten amnistia aldarrikapenik 1934ko iraultzaileentzat. Oroitu behar gara "Coalición Contrarrevolucionaria"-k EAJ bere alde egon zela esaten duela, horregatik alde batera uzten du. Eta bigarrena, Euskal Estatutua programatik at ere gelditu zen uste zutelako "Coalición Contrarrevolucionaria"-k irabazi behar zituela hauteskundeak Espainia mailan eta, ondorioz, proiektua bertan behera geldituko zela uste zuten. Amaitzeko esan behar dugu bere kanpaina tradizioz EAJ botatzen zuten kopurua mantentzea eta kristau ez afiliatuen botoak lortzea zela.


"Frente Popular"-aren kanpaina "Lapurren eta beren enkubritzaileen aurka", "Amnistia! Estatutua!" eta "desahuzio gehiagorik ez!" lelopean egin zen. "Coalición Contrarrevolucionaria" bezala, gizartearen bipolarizazioa defendatzen zuen. Beraiek bezala ere alderdi bakoitzaren baloreak konparatzen zituzten, lana, kultura, askatasuna, justizia, errepublika, demokrazia eta etika politikoa ziren "Frente popular"-aren baloreak. Kapitalismoa, inperialismoa, esplotazioa, pistolismoa, ikara, guda, errepresioa, malkoak, heriotza, diktadura, faxismoa eta inmoralitatea berriz "Coalición Contrarrevolucionaria"-renak. Estatutuaren alde agertzen ziren, honekin, EAJri botoak kendu nahian.

Altzan hiru tendentzia politiko hauek aurkeztu ziren hauteskundeetara. Hauek izan ziren emaitzak:

Música (Coalición Contrarrevolucionaria).....	59 boto
Lojendio (Coalición Contrarrevolucionaria).....	358 boto
Paguaga (Coalición Contrarrevolucionaria).....	358 boto
Oreja (Coalición Contrarrevolucionaria).....	354 boto
Irazusta (EAJ) .....	700 boto
Monzón (EAJ).....	729 boto
Picavea (EAJ) .....	655 boto
Irujo (EAJ) .....	938 boto
Lasarte (EAJ).....	704 boto
Ansó (Frente Popular).....	682 boto
Apraiz (Frente Popular).....	679 boto
Amilibia (PSOE).....	684 boto
Larrañaga (Alderdi Komunista) <sup>27</sup> .....	555 boto

---

<sup>26</sup> Amilibia eta Larrañaga "Frente Popular"-aren barruan zeuden.



Ikusten dugun bezala, beste hauteskundeen joera mantentzen da. EAJ da boto gehien lortzen duen alderdia da.



Gipuzkoa mailan berriz, ez da Altzan gertatzen den gauza bera gertatzen, hemen "Coalición Contrarrevolucionaria"-k bigarren lekua kentzen dio "Frente Popular"-ari. EAJ mantentzen da lehenengo postuan, baina esan dezakegu hiruen arteko diferentziak ez direla oso nabarmenak.

Hauteskundeetako datu hauek guztiak hobeto ulertzeko laburpen txiki bat egingo dugu:

1931ko udal hauteskundeetan, boto gehien Independentek<sup>28</sup> lortu zituzten, hala ere, hautagai botatuena EAJren ordezkari bat zen, José Juanes. Gipuzkoa mailan, berriz, Katoliko Monarkikoak izan ziren zinegotzi gehien lortu zituztenak, 185ekin, Abertzaleak 110 zinegotzi lortu zituzten, Errepublikarrek eta Sozialistek 100, Tradizionalistek 70, eta Independentek 65.

1931ko hauteskunde orokorretan, Lizarrako Estatutuaren defendatzaileak eta ezkerreko indarrek parean agertzen dira Altzan, nahiz eta lehenbizikoak boto kopuru gehiago lortu. Baita ere Komunistak agertzen dira boto gutxi batzuekin. Gipuzkoa mailan, Lizarrako Estatutuaren defendatzaileen eta ezkerreko indarren alde nabarmentzen da lehenbizikoen alde.

1933ko hauteskundeetan erraz irabazten du EAJk, Gipuzkoan bezala, baina desberdintasun bat badago beraien artean: Altzan bigarren indar politikoa errepublikarrak dira, eta Gipuzkoan, berriz, "Unión de Derechas" gelditzen da bigarren.

1936ko hauteskundeetan, Altzan 1933ko joera errepikatzen da. EAJ suertatzen da garaile eta bigarren "Frente Popular" gelditzen da. Gipuzkoan emaitzak 1933ko hauteskundeekin alderatuta errepikatzen dira, baita ere EAJk irabazten duelako eta ondoren eskuina gelditzen delako.

Beraz, Altzan 1931n izan ezik, kandidatura independentea irabazi zuenean, beti irabazi zuen EAJk, Gipuzkoako tendentzia berbera jarraituz. Desberdintasuna dago bigarren aukera politikoa, Altzan ezkerreko indarrek gelditzen dira beti bigarren, herrian zuten indarra erakutsiz eta Gipuzkoan, berriz, eskuina irabazten dio ezkerriari.

Altzan ematen zen joera politikoa hobeto ulertzeko eta argitzeko pixka bat zergatik eman ziren emaitza hauek, hurbileko beste herrien emaitzekin alderatzen ahal ditugu. Honetarako Pasaia eta Astigarraga aztertuko ditugu laburki beraien joerak, aztertzeko eta zer berdintasun eta desberdintasunak ematen ziren Altzarenekin. Hona hemen Pasaian eman ziren emaitzak<sup>29</sup>:

---

<sup>28</sup> José Antonio Rodríguez Rancek, berea den *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República* obran, "Coaliciones Populares y de independientes" deitzen die hautagai hauei. 319. orrialdea.

<sup>29</sup> Argitzeko jarriko ditugu sigla bakoitzaren esanahia:

LE: Lizarrako Estatutuaren defendatzaileak. EK: Errepublikar Koalizioa. S: Socialistas. EAE: Euzko Abertzale Ekintza. AK: Alderdi Komunista. UD: Unión de Derechas. EAJ: Euzko Alderdi Jeltzalea. PSOE: Partido Socialista Obrero Español. CC: Coalición Contrarrevolucionaria. FP: Frente Popular

PASAIA	LE	EK	AK	UD	EAJ	EK	PSOE	EAE	CC	FP
1931ko hauteskunde orokorrak	405	591	32							
1933ko hauteskunde orokorrak			217	186	1411	423	512	65		
1936ko hauteskunde orokorrak					1326				336	1749

ASTIGARRAGA	LE	EK-S-EAE	UD	EAJ	EK	PSOE	AK	EAE	CC	FP
1931ko hauteskunde orokorrak	237	145								
1933ko hauteskunde orokorrak			130	424	25	91	2	7		
1936ko hauteskunde orokorrak				357					181	175

Ikusten dugu Pasaian joera aldaketak egon zirela, bakarrik begiratu ditugu hauteskunde orokorren emaitzak, baina nabarmen gelditzen da nola hasieran, 1931n Errepublikar Koalizioa izan zituen boto gehien, gero 1933an EAJk eta, azkenik, 1936an berriz "Frente Popular"-ak irabazi zuen. Kontuan izan behar dugu Pasaia herri industrializatu bat zela, orduan logikoa zen langileak gehiengo ziren herri batean ezkerreko indarrak irabaztea. 1933ko gehiengo jeltzaleak arrazoi bat du. Urte horretan emakumeak lehenengo aldiz botatu zuten. Ez diegu emakumeei eskuin indarren garaipena leporatu behar, baina bai dela egia emakumeen boto oso boto kontserbadore eta erlijioso zela eta horrek eskuina indartzeko balio izan zuen.


Astigarragan berriz, EAJ izan zen garaile hiru hauteskundeetan eta bigarren, baina oso abantaila txikiarekin<sup>30</sup>, 1933an "Unión de Derechas", eta 1936an "Coalición Contrarrevolucionaria". Beraz, esan dezakegu joera egonkor bat ematen dela, Altzan bezala, diferentzia batekin, Altzan bigarren indarra ezkerre zen eta hemen eskuina.

#### 4. ALTZAKO UDALETXEAREN KONSTITUZIOA ETA JASOTAKO ALDAKETAK

Altzako herritarrek 1931n udal berri bat hautatu zuten, ziklo historiko berri bati hasiera emanez. Baina hautatutako korporazio berri hau ez zen monolitikoa izan, atal honetan ikusiko dugun bezala gora behera asko jasan zituen eta Errepublikak iraun zituen urteetan.

<sup>26</sup> 1933ko hauteskundeetan E.K. PSOE, AK, eta EA Eren emaitzak batzen baldin baditugu, 125 boto ditugu guztira eta UDK aldiz 130 ditu, hau da, bost gehiago. 1936an abantail urri hori mantentzen da "Coalición Contrarrevolucionaria" eta "Frente Popular"-en artean eta sei boto gehiago lortzen dituzte "Coalición Contrarrevolucionaria"-koek.

1931ko apirilaren 17an egin zen. Ez ohiko sesioan bildu ziren, oraindik Juan Bautista Tejadaren lehendakaritzapean. Kargua uzten zutenak Santiago Elizalde, Dionisio Elizalde, Manuel Galardi, José Luis Galardi, Agustín Garmendia, José Matxain, José Manuel Escudero eta Pablo Elizalde ziren, erran dugun Juan Bautista Tejadarekin batera. Karguaren jabe izatera pasatzen zirenak José Juanes (abertzalea), Ricardo Tejada (independentea), Felipe Zurutuza (independentea), José Iruretagoyena (independentea), José Casares (independentea), Pedro Ayesta (independentea), Pablo Landa (abertzalea), José Manuel Beretarbide (abertzalea), Manuel Sasiain (independentea), Juan Iriarte (errepublikarra), Gaspar Cardona (errepublikarra) eta Celestino Atorrasagasti (abertzalea) ziren. Ateratzen zen alkatea udalaren egoera ekonomikoaren berri eman zien sartzen ziren zinegotziei eta José Juanesi pasatu zion lehendakaritza, bera baitzen boto gehien lortu zituenena. Karguen hautaketa hurrengo egunerako utzi zuten, gai honen inguruan gobernu zibilaren disposizio berri bat etorriko zelaren errezeloa zutelako.



Bertan jasotako akta honela zioen:

“En la Villa de Alza a diez y siete de Abril de mil novecientos treinta y uno, siendo las cuatro y media de la tarde y bajo la presidencia del Sr. Alcalde Don Juan Bautista Tejada, asistido de mí el infrascrito Secretario, se reunieron en sesión extraordinaria los Sres. Concejales y Concejales electos anotados al margen (Sres. Concejales: D. Santiago Elizalde, D. Dionisio Elizalde, D. Manuel Galardi, D. José L. Galardi, D. Agustín Garmendia, D. José Macháin, D. José M. Escudero, D. Pablo Elizalde. Concejales electos: D. José Juanes, D. Ricardo Tejada, D. Felipe Zurutuza, D. José Iruretagoyena, D. José Casares, D. Pedro Ayesta, D. Pablo Landa, D. José

M. Beretarbide, D. Manuel Sasiain, D. Juan Iriarte, D. Gaspar Cardona, D. Celestino Atorrasagasti.), al objeto de celebrar la sesión de constitución del nuevo Ayuntamiento en la forma que preceptua el artículo 52 de la Ley municipal del año de 1877.

Abierta la sesión por el Sr. Alcalde Presidente, por orden del mismo, yo el Secretario di lectura de las disposiciones vigentes concernientes al acto y a la lista de los Sres. Concejales electos en las últimas elecciones y cuya capacidad no ha sido válidamente impugnada.

Inmediatamente: el Sr. Presidente dio posesión del cargo a los nuevos Concejales proclamados por la Junta Municipal del Censo Electoral, en virtud de las últimas elecciones, declarando constituido el Ayuntamiento, haciendo seguidamente presente la situación económica del Ayuntamiento que cesa.

Acto-seguido: Cedió la Presidencia al Concejal Don José Juanes Echeveste, por ser el concejal de mayor número de votos, retirándose del Salón juntamente con los Concejales cesantes, quedando constituido el nuevo Ayuntamiento interinamente.

En este estado y a instancia del Sr. Presidente los reunidos acordaron suspender la elección de los cargos hasta las siete horas del día diez y ocho, con el objeto de ver si llega alguna nueva disposición sobre dicha elección, haciendo constar que lo hacían unánimemente.

Leida que fue esta acta y conformes con ella los presentes firman, de que yo el Secretario certifico.

Minuta del acta de lo tratado en la sesión.

El Presidente.

El Secretario.”<sup>31</sup>

Apirilaren 18an bildu ziren zinegotzi berriak ez ohiko sesioan karguen banaketa egiteko. Lehenbizi alkatea hautatu behar zuten, eta José Juanes Echeveste hautatua izan zen hamabitik hamar boto alde izan zituelako eta bi txuri izan zirelako, “En la Villa de Alza a diez y ocho de Abril de mil novecientos treinta y uno, siendo las siete y media horas de la tarde, y bajo la presidencia interina del Concejal don José Juanes Echeveste, asistido de mí el infrascrito secretario, se reunieron los Sres. Concejales anotados al margen al objeto de proceder al nombramiento de Alcalde Presidente y demás cargos; conforme disponen los artículos 53 y siguientes de la Ley Municipal del año de 1877. (...)”

Inmediatamente: el Sr. Presidente anuncia que se va a proceder a la votación de Alcalde Presidente conforme a los artículos 53 y 54 de la Ley, y suspende la sesión por cinco minutos para que los Sres. Concejales se pongan de acuerdo en ello.

<sup>31</sup> Donostiako Udal Artxiboa: Altzako Udaletxeko aktak, A-01-01 112L (1931ko apiriletik 1932ko ekainera)

Transcurridos los cinco minutos, la Presidencia declara abierta la sesión y a la vez la elección de Alcalde Presidente de la Corporación.

Llamados los Sres. Concejales por orden del número de votos obtenidos, entregan sus papeletas a la presidencia, la que deposita una por una en la urna destinada al efecto.

Terminada la votación, el Sr. Presidente procede al escrutinio, dando éste el resultado siguiente:

Don José Juanes .....	10 votos
Papeletas en blanco .....	2 “
Total .....	12 votos

Por la votación que antecede, queda elegido Alcalde Presidente por mayoría absoluta de votos Don José Juanes Echeveste, el cual se proclama y se hace cargo de las insignias y agradece a sus compañeros de Corporación la confianza que en él han depositado.”<sup>32</sup>

Beraz, Altzak alkate abertzale bat hautatu zuen. Bi boto zuriak gutxiengo errepublikarra emanak ziren (Gaspar Cardona eta Juan Iriarte). Beste karguak hone-la geratu ziren emaitza hauekin:

- Alkateordea: Celestino Atorrasagasti Casares, hamar boto alde eta bi zuri (gutxiengo errepublikarra)
- 2. Alkateordea: Pedro Ayesta Cendoya, hamar boto alde eta bi zuri (gutxiengo errepublikarra)
- Sindiko: José Casares Larrarte, hamar boto alde eta bi zuri.
- 2. Sindiko: Pablo Landa Iribar, zortzi boto alde, bi boto José Iruretagoyenari eta bi zuri (gutxiengo errepublikarra)
- Zinegotzia: Ricardo Tejada, Duque de Estrada.
- Zinegotzia: Felipe Zurutuza.
- Zinegotzia: José Iruretagoyena Querejeta.
- Zinegotzia : José Manuel Beretarbide Aristizabal.
- Zinegotzia: José Manuel Sasiain Astiasuainzarra.
- Zinegotzia: Juan Iriarte Aguirre.
- Zinegotzia: Gaspar Cardona Guarinos.

---

<sup>32</sup> Id



Banaketa amaitu ondoren, gutxiengo errepublikarra erran zion lehendakariari aktan jartzeko beraiek ez zirela abertzaleak, bere jarrerarekin erakutsi zuten bezala, eta bere dimisioa aurkeztu zuten; baina hau ez zen onartu. Konstituzio aktan ez da zehazten portaera honen zergatia: "La minoría Republicana compuesta por los Concejales Sres. Cardona e Iriarte, hacen constar su protesta, manifestando que son de ellos las papeletas en blanco de la votación que precede."<sup>33</sup>

Atal honen hasieran erran dugun bezala, korporazio berria ez zen sortu zen bezala luze iraun: 1931ko abenduaren 19an, José Juanes Alkateak bere dimisioa aurkeztu zuen urdaileko arazoak zituelako, eta medikuaren agiri bat aurkeztu zuen. Hala ere, zinegotzi batzuek osatzeko behar zuen denbora hartzea eskatu zioten, gero karguan jarrai zezan. Aktetan horrela agertzen da Eskeraek eta Galde-rak atalean: "...El Alcalde Presidente presenta una certificación médica en la que consta que padece del estómago y se ve imposibilitado a continuar en su cargo, por lo que presenta la dimisión del mismo.

Los Concejales Sres. Ayesta y Cardona ruegan a la presidencia que retire la dimisión y tome los meses de licencia que le convengan para reponerse.

La mayoría de los Sres. Concejales se adhieren a esta manifestación y ruegan al Sr. Alcalde retire la dimisión y pida la licencia que le haga falta para recuperarse de su enfermedad.

El Sr. Alcalde Presidente agradece las manifestaciones de los Sres. Concejales, pero manifiesta que su dimisión es irrevocable por estar enfermo como en el certificado se dice."<sup>34</sup>

Dena dela, asuntoa ez zen hor amaitu eta astebete beranduago arazo berdina tratatu zuten. Abenduaren 26an irakurtzen ahal dugu: "Quinto Acuerdo / Inmediatamente; se dio cuenta de dimisión del cargo de Alcalde que presenta Don José Juanes fundándola en que se encuentra enfermo y que quedó sobre la mesa en la pasada sesión.

El Concejal Sr Landa dice que la certificación médica presentada no puede ser impugnada por él pero que cree que la dolencia no debe ser muy grave cuando el Sr. Juanes canta (sic), por lo que es de parecer que se le conceda licencia por tres meses para que se reponga de su dolencia.

El Concejal Sr. Ayesta, manifiesta su parecer de que le sea admitida la renuncia del cargo de Alcalde y siga como Concejal.

El Concejal Sr. Iriarte pide que renuncie al puesto de la Alcaldía y Concejalía o sea, los dos cargos, si es que esta enfermo.

---

<sup>33</sup> Donostiako Udal Artxiboa: Altzako Udaletzeko aktak, A 01-01 112L (1931ko apiriletik 1932ko apirilera).

<sup>34</sup> Id

El Concejal Sr. Cardona, dice que si está enfermo para ocupar la Alcaldía también debe estar para continuar siendo Concejal y hace esta manifestación en vista de lo que se discute.”<sup>35</sup>

Badirudi zinegotziak ez zirela ados jartzen, alde batetik errepublikarrak José Juanes Udala uztea nahi zuten, gaixorik baldin bazegoen eta bestetik kide aberztzaleak baimena eman nahi zioten bere minatik osatzeko eta zinegotzi bezala jarraitzeko. Ikus dezagun zer gertatu zen azkenean:

Sesio berean hau aurkitzen dugu: “(...) Votan por que le sea admitida la renuncia del cargo de Alcalde los Concejales Sres Ayesta, Casares, Iruretagoyena y Presidente.

Votan por que no sea admitida la renuncia los concejales Sres Landa, Zurutuza, Sasiáin, Beretarbide, Iriarte y Cardona.

Hecho el escrutinio del resultado de la votación resulta que no se le admite la renuncia por seis votos contra cuatro.”<sup>36</sup>

Gauza bitxi bat gertatu zen: bi zinegotzi errepublikarrak José Juanes bere karguan jarraitzeko partaide izan ziren, nahiz eta hasiera batean bere kargua uztearen alde agertu. Arazoaren bukaera aurkitzeko 1932ko otsaileraino joango gara.

1932ko otsailaren 16ko ez ohiko sesioan hau aurkitzen dugu: “(...) Primer Acuerdo / Se leyó el escrito de D. José Juanes, participando que muy a pesar suyo no puede volver a aceptar el cargo de Alcalde por subsistir los mismos motivos que le obligaron a dimitir. Todos los Sres Concejales se expresaron con verdadero sentimiento y pena al verse privados de tan digno Presidente, acordando aceptarla pero haciendo constar ese mismo sentimiento y formulando votos para que cuando menos les secunde como Concejal en la noble tarea de administrar los intereses del pueblo de Alza.” Beraz, azkenean, José Juanesek bere kargua utzi zuen eta zinegotzia izatera pasatu zen.

Orain arazoa beste alkate berri bat izendatzea zen. Ez zuen luze jo egoera hau eta otsailaren 25ean botazioa egingo da udaletxean: “(...) bajo la Presidencia del Sr. Alcalde accidental D. Pedro Ayesta y Cendoya, siendo el orden del día; nombramiento del Sr Alcalde; (...)

Inmediatamente el Sr. Presidente anuncia que se va a proceder a la votación de Alcalde Presidente (...)

Terminada la votación el Sr. Presidente procede al escrutinio dando el resultado siguiente:

---

<sup>35</sup> Id

<sup>36</sup> Id

Don Pedro Ayesta, seis votos.

Papeleta en blanco, una.

Don Gaspar Cardona, uno.

Don Juan Iriarte, uno.

Don Ricardo Tejada, uno

Total Diez votos

Por la votación que antecede queda elegido Alcalde-Presidente Don Pedro Ayesta Cendoya por mayoría absoluta de votos.(...)

Acto seguido anuncia que se va a proceder a la votación del segundo Teniente- Alcalde, vacante por su nombramiento de alcalde (...)

Procediéndose a la votación del cargo del 2º Teniente de Alcalde y efectuada ésta dio el resultado siguiente:

Don Pablo Landa: cinco votos

Don Ricardo Tejada: uno

Papeletas en blanco: dos

Al observar la desaparición de los señores Cardona e Iriarte entre la primera y la segunda votación y sin la venia de la Presidencia el Sr. Casares hace constar su protesta más enérgica.

En vista del escrutinio, del cual resulta elegido por mayoría absoluta de votos el Concejal Don Pablo Landa, fue proclamado 2º Teniente Alcalde, dándole posesión del cargo el Sr. Presidente."<sup>37</sup>

Alkatea	1. Alkateordea	2. Alkateordea	Sindikoa	Zinegotziak
Ayesta	Atorrasagasti	Landa	Casares	Tejada
				Zurutuza
				Iruretagoyena
				Beretarbide
				Sasiain
				Cardona
				Iriarte
				Juanes

<sup>37</sup> Id

Aldaketa aipagarrienak 1932tik aurrera emango ziren. Urte honetan, irailean, udalaren konposizioa zeharo aldatu ziren. Gipuzkoako gobernadore zibilak, Pedro del Pozo, herria hautatutako korporazioa bere kargutik kendu zuen eta Zinegotzi Gestoreak izendatu zituen korporazioak egiten zuen lana betetzeko. Ez da zehazten zergatik egiten den destituzio hau. Bakarrik aurkitu dugu izendapenen akta, eta "La Voz de Gupuzcoa" egunkarian berri txiki bat honi buruz: "Alza / Vida Republicana / Como consecuencia de la determinación adoptada por la Superioridad gubernativa contra la mayoría derechista del Ayuntamiento, se celebró sesión municipal, habiéndose ordenado por el excelentísimo señor gobernador civil, mediante comunicado del señor alcalde (suspendido) la entrega de la vara símbolo autoritario al concejal de la minoría republicana señor Iriarte, a quien deseamos toda clase de aciertos en sus gestiones"<sup>38</sup>. Agian aldaketa hau etorri zen abuztuaren Errepublikaren aurka izandako altxamenduagatik, eta Alzako udalean sortu zituen istiluengatik. Altxamendu hau Sanjurjo jenerala egin zuen abuztuaren 10ean, baina ez zuen amaiera onik izan. Garai hartako egunkariak horrela jaso zuten berria:

"ÚLTIMA HORA / Los enemigos de la República / Esta madrugada se han producido en Madrid sucesos que han requerido la enérgica intervención de la fuerza pública."<sup>39</sup>

"LA REPUBLICA HA VENCIDO EL COMLOT MONARQUICO / Inutilizados los revoltosos en Madrid, el general Sanjurjo cercado en Sevilla por tropas de tierra y mar, ha desaparecido según noticias de madrugada confirmadas por el ministro de la Gobernación, con rumbo desconocido. Las fuerzas se han entregado a la República."<sup>40</sup>

Udalan izandako istiluak horrela jaso ziren aktetan.

"Ruegos y Preguntas / Finalmente el Señor Iriarte propone que con motivo de los recientes acontecimientos se envíe un telegrama de adhesión al Gobierno de la República pidiendo al mismo tiempo castigo ejemplar para los sublevados- El Sr. Tejada replica, primero, que los ideales se han de respetar, sea de donde vinieren y segundo que lo más propio sería pedir clemencia para los sublevados- El Señor Cardona se adhiere a las palabras del Sr. Iriarte y añade que esta sublevación reviste caracter de traición, puesto que se trata de Generales y oficiales que han luchado con uniforme y hallándose al servicio del Estado y del Gobierno; que para sublevarse lo primero que hubiesen tenido que hacer era arrancar sus insignias o sus uniformes.- El Sr. Iriarte pregunta ¿Es que aquí se reconoce o no la República?- La Presidencia replica que sí, pero el reconocerla y acatarla, no entraña nin-

---

<sup>38</sup> Koldo Mitxelena: "La Voz de Guipúzcoa" 1932ko irailak 10.

<sup>39</sup> Koldo Mitxelena: "la Voz de Guipúzcoa" 1932ko abuztuak 10

<sup>40</sup> Koldo Mitxelena: "La voz de Guipúzcoa" 1932ko abuztuak 11.

guna adhesión moral, que es cosa sagrada y donde nadie tiene derecho a penetrar. Finalmente la proposición de los Sres Iriarte y Cardona fue rechazada por todos los demás miembros de la Corporación".<sup>41</sup>

Hurrengo sesioan, abuztuaren 27an, berriz eztabaidatu zuten asunto berari buruz: "Ruegos y Preguntas / (...) Finalmente el Concejal Sr. Iriarte ¿Es que el Sr. Juanes se adhiere o no a la República con motivo de los últimos acontecimientos sediciosos contra el Gobierno?

El Concejal Sr. Juanes contesta que se adhiera a la República; pero si él hubiera de asistir a la sesión en que se tomó el acuerdo contrario, hubiese pedido clemencia para los sublevados."<sup>42</sup>

Behar bada, Pedro del Pozo gobernadoreak korporazioaren jarreraren eta eztabaida hauen berri izan zituen eta horregatik aldatu zuen. Bitxia da ikustea Iriartek eta Cardonak jarraitu zutela, bi zinegotzi errepublikarrak, Iriartek gainera alkate moduan. Hau da korporazio berriaren izendapenaren akta:

"En la Villa de Alza a 29 de Septiembre de 1932, siendo las seis y media horas de la tarde, ante el Señor Alcalde en funciones, Don Juan Iriarte y Aguirre, acompañado del Concejal Señor Cardona y de mi el infrascrito Secretario comparecieron previamente citados los Señores Don Abelardo Velasco Trecu, Don Ángel Guillén Garayoa y Don José Salvador Quevedo.

Por orden de la Presidencia yo el Secretario di lectura a la comunicación del Excelsísimo Señor Gobernador Civil de Guipuzcoa, cuyo tenor literal es el siguiente:

"Para entregar a los interesados, adjunto le remito el nombramiento de Concejales Gestores interinos a favor de Don Abelardo Velasco Trecu, Don Ángel Guillén Garayoa, Don José Salvador Quevedo, a los cuales se les dará posesión acto seguido en sesión extraordinaria, a fin de que pueda seguir su curso la vida administrativa de este Ayuntamiento. San Sebastián 27 de Septiembre de 1932. El Gobernador: Pedro del Pozo, rubricado. Sr Alcalde en funciones de Alza."<sup>43</sup>

Horrela gelditu zen korporazioa:

Alkatea	1. Alkateordea	2. Alkateordea	Sindikoa	Zinegotziak
Iriarte	Cardona	Guillén	Velasco	Salvador

Sartzen diren hiru zinegotzi berrietatik, bi udal hauteskundeetan hartu zuten parte, Felipe Guillének eta José Salvadorrek. Guillének nahiko emaitza onak jaso zituen eta sei botogatik ez zen lehenengo udalan sartu. José Salvadorrek, ordea,

<sup>41</sup> Donostiako Udal Artxiboa: Altzako Udaletxeko aktak, A 01-01 113L (1932ko ekainatik 1933ko martxora).

<sup>42</sup> Id

<sup>43</sup> Id.

nahiko emaitza kaxkarrak jaso zituen. Beranduago, 1932ko urriaren 9an gobernadoreak beste eskutitz bat bidali zuen beste bi zinegotzi berri izendatuz:

“(…) Primer Acuerdo / Se leyó la comunicación del Excm. Sr. Gobernador Civil de Guipuzcoa nombrando Concejales Gestores a los Señores Don Victoriano Moranchel y Don José Hernández”.<sup>44</sup> Moranchelek ere hauteskundeetan hartu zuen parte eta ez zen Udaletik oso urruti egon. Izendapen hauekin lehen zituen hamabi zinegotzitik pasatzen da zazpi izatera, esanguratsua da datu hau orain zazpi pertsonen egin behar dutelako lehen hamabi pertsona egiten zuten lana.

Alkatea	1. Alkateordea	2. Alkateordea	Sindikoa	Zinegotziak
Iriarte	Cardona	Guillén	Velasco	Salvador Hernández Moranchel

1934an zinegotzi ohiak bere postuetara itzuli ziren Emeterio Muga gobernadore zibil berriak hala erabakita. Beraz, itzuli ziren denak, Celestino Atorrasagasti izan ezik, azken hau zendu zelako. Horrela zioen Emeterio Mugak:

“Con fecha de hoy, me dirigen escrito varios componentes del Ayuntamiento titular suspenso de esa localidad por el que ponen en mi conicimiento que han requerido a esa Gestora a fin de, que conforme a lo dispuesto por el artículo 190 de la Ley Municipal cese en sus funciones para ser aquellos reintegrados en sus puestos.”<sup>45</sup>

Hala ere, ez zuten asko iraun bere postuetan eta, Errepublika aurrera joan ahal, Altzako udalak modifikazioak izaten jarraitu zuen, eta horrela aurkitzen dugu 1934an berriz aldatu zirela zinegotziak; ez denak, Gaspar Cardonak jarraitzen du: “En la Villa de Alza a diez y siete de Septiembre de 1934, siendo las diez horas y treinta minutos de la mañana, ante el Sr. Alcalde en funciones Don Gaspar Cardona Guarinos y de mi el Secretario interino comparecieron previamente citados los señores siguientes. = D. Valentín Quintanilla Martínez. = D. Julián Felones Pérez. = D. Juan Sans Montseny. = D. José Echeverría Arizmendi. = D. Luis Rubio Constans. = D. Fernando Galardi Arcelus. = D. Vicente Elizalde Arandia. = D. Andrés Loinaz Arrastua. = No asiste ni excusa su asistencia D. Ramón Aulestiarte. Telefónicamente avisa el Sr. D. Francisco Eizaguirre de que no puede aceptar el cargo para el que ha sido designado. (...)”<sup>46</sup>

Aurkitzen dugu berriz izendatze berri hau gobernadore zibilaren eskutik datorrela, eta kontuan hartu behar da bera izan zela korporazio ohiari bere postuak itzuli zizkiona. Dokumentu hau bidali zuen zinegotzi aldaketaren berri emateko:

<sup>44</sup> Id.

<sup>45</sup> Altzako Udaletxeko aktak: A 01- 01 115L (1933ko azarotik 1934ko uztaileira).

<sup>46</sup> Altzako Udaletxeko aktak: A 01- 01 116L (1934ko abuztutik 1935eko irailera.)

“(…) En las vacantes existentes por abandono de funciones, he acordado designar en uso de las atribuciones que me están conferidas, los diez Concejales Interinos cuyos nombramientos se acompañan, para que en unión de los Concejales subsistentes normalicen la vida de ese Ayuntamiento.- Sírvase darles posesión inmediata. San Sebastián 13 de Sepbre de 1934. (...)”<sup>47</sup>

Alkatea	1. Alkateordea	2. Alkateordea	Sindikoa	Zinegotziak
Rubio	Aulestiarte (uko egiten dio)	Loinaz	Quintanilla	Cardona Felones Sans Echeverria Galardi Elizalde

La Voz de Guipúzcoa egunkariak irailaren 19an honela jaso zuen albistea:

“Constitución de la Gestora Municipal / Después de diversas consultas, ha quedado por fin, constituida la gestora de Alza.

El pasado lunes a las diez de la mañana, se reunieron los gestores nombrados en el municipio, a excepción de los señores Aulestiarte e Izaguirre, éste último indicó por teléfono la imposibilidad de aceptar el cargo que se le confiere.

Esto no obstante el municipio ha quedado constituido (...). Acaso haya alguna modificación, bien para cubrir posibles renunciaciones o para completar el número de ediles correspondientes. De todas formas el actual municipio se reunirá, hoy, miércoles, para repartirse los cargos de las diversas comisiones, y el jueves a las cinco y media de la tarde, siguiendo la ruta normal, la primera sesión municipal.

La filiación política de los componentes de la Gestora, la desconocemos en su totalidad, solamente sabemos que los señores Quintanilla, Sans y Felones, pertenecen al Partido Radical; a los demás los conocemos como vecinos, pero ignoramos hasta el momento, a qué partido están inscritos.

Por el momento, ni les felicitamos ni hacemos ningún comentario; tiempo habrá para ello.”

Antza denez, herria ez zegoen izendatze hauen alde. Komisioak osatu zituztenean protestak egon ziren plenora joan zen jendearen aldetik eta horrela jaso zituzten protesta hauek aktetan<sup>48</sup>:

<sup>47</sup> Id.

<sup>48</sup> Lehenengo eranskin honi buruz hitz egiten du. Sans gestorearen eskutitz bat da, istiluetaz hitz egiten eta kargua zergatik onartu duen esplikatzen.

“(…) Inmediatamente el Sr. Presidente declaró constituidas las Comisiones en que queda dividido este Ayuntamiento haciendo constar al mismo tiempo que en vista de la actitud del público, quien con sus interrupciones y manifestaciones está influenciando el ánimo de los Sres. Concejales a quienes un mandato superior y que lo estiman en cuanto vale, les ha designado no para realizar no una campaña revisionista ni de obstrucción cosa que ellos por su parte tampoco verificarían, sino simplemente continuar mal o bien la labor siempre acertada del Ayuntamiento dimisionario cuyos méritos ellos reemplazan no con méritos suficientes pero sí con una buena voluntad y para no entorpecer la marcha administrativa del municipio de Alza. Ello le propulsa ha hacer constancia del disgusto que produce a los Sres. Concejales Gestores y a él mismo tal actitud sin esperar a ser realizada la labor que a ellos se confía ya que es injusto prejuzgar sin motivos suficientes.”<sup>49</sup>

Eizagirrek eta Aulestiarte kargua onartu ez zutenez, gobernadoreak beste bi gestore izendatu behar izan zituen eta Antonio Porras eta José Antonio Galardi izendatu zituen, eta honela gelditu ziren karguak Udalan:

Alkatea	1. Alkateordea	2. Alkateordea	Sindiko	Zinegotziak
Rubio	Porras	Loinaz	Quintanilla	Cardona Felones Sans Echeverria F. Galardi Elizalde J.A. Galardi

Egoera hau 1936ko otsailera arte luzatu zen. Orduan beste eskutitz baten bidez, gobernadoreak kargua itzuli zien 1931an herriगतik hautatuak izan zirenei:

“(…) Gobernador Civil a Secretario Ayuntamiento. = Sírvase notificar a todos los Concejales de elección popular que desde el día de hoy veintidós pueden reintegrarse a sus puestos habiendo sido amnistiados cuantos sufrieron condena de inhabilitación, en consecuencia cesarán todos los Gestores gubernativos sin perjuicio de que alcaldías actuales puedan continuar efectuando mañana domingo operaciones de reclutamiento.- Deme acuse de recibo a esta orden. = En su cumplimiento seguidamente curse oficios trasladando la citada comunicación a los Sres. Concejales a quienes hace referencia.”<sup>50</sup>

Honez gero ez ziren aldaketa gehiago egon korporazioaren osaketan, eta berdin jarraitu zuen Errepublikaren amaiera arte.

<sup>49</sup> Id.

<sup>50</sup> Altzako Udaletzeko aktak: A 01-01 117L (1935eko irailatik 1936ko azarora)



## 5. UDALAREN LANA

Orain arte aztertu dugu udalaren osaketa 1931ko udal hauteskundeen ondorioz eta jasotako gora behera guztiak Errepublika amaitu arte. Orain atal honetan ikusiko duguna bere eguneroko lana da, zeintzuk ziren bere eginbeharrak, zertaz arduratzen zen, zer asuntok tratatzen zituen...

Iristen ziren asuntoei behar zuten trataera emateko, Errepublikan sortutako lehenengo Udalak bost komisio sortzea adostu zuen. Bost komisio hauek zinegotziaz osatuta zeuden eta lehendakari bat, lehendakariorde bat eta bozeramaile batetaz osatuta zeuden, Obrak, Bideak eta Mendietako Komisioa izan ezik, honek hiru bozeramaile zituen eta. Ailegatzen ziren asuntoei buruz komisioak informe bat egiteaz arduratzen ziren, egiten zuten eskaerari baimena eman ez edo ez. Bost komisioak hauek ziren:

Karguak	Hazienda	Gobernazioa	Ura eta Argia	Sortze eta Garbitasuna	Obrak, Bideak eta Mendiak
Lehendakaria	Ayesta	Sasiain	Iriarte	Casares	Ayesta
Lehendakari ordea	Beretarbide	Iriarte	Sasiain	Cardona	Tejada
Bozeramailea	Tejada	Zurutuza	Zurutuza	Zurutuza Cardona, Zurutuza, Iruretagoyena	

Korporazio bakoitzak komisioak errespetatu zituen baina ez zen horrela izan karguekin eta hauek aldatu egin ziren, ikusiko dugu nola:

Karguak	Hazienda	Gobernazioa	Ura eta Argia	Sortze eta Garbitasuna	Obrak, Bideak eta Mendiak
Lehendakaria	Guillén	Cardona	Guillén	Guillén	Cardona
Lehendakari ordea	Velasco	Velasco	Velasco	Velasco	Velasco
Bozeramailea	Salvador	Salvador	Salvador	Salvador	Salvador

Izendatu zuten lehendabiziko Udal Gestorean ikusten ahal dugu nola Obrak Bideak eta Mendietako hiru bozeramaileak bakarra izatera pasatzen den.

<sup>51</sup> Kontuan izan behar dugu Errepublikan zehar komisioetako kideak aldatzen joan zirela. Korporazioak bere konposizioa aldatzen zuenean, orduan komisioetako kideak ere aldatzen ziren.

Karguak	Hazienda	Gobernazioa	Ura eta Argia	Sortze eta Garbitasuna	Obrak, Bideak eta Mendiak
Lehendakaria	Velasco	Moranchel	Guillén	Cardona	Hernández
Bozeramaileak	Hernández Moranchel	Hernández Salvador	Velasco Salvador	Guillén Salvador	Salvador Moranchel

Gobernadore zibilak lehendabiziko Udal Gestorea osatu zuenean, lehendakariordearen kargua desagertu zen eta komisio bakoitza bi bozeramaile edukitzera pasatzen da.

Karguak	Hazienda	Gobernazioa	Ura eta Argia	Sortze eta Garbitasuna	Obrak, Bideak eta Mendiak
Lehendakaria	Quintanilla	Elizalde	Echeverria	Quintanilla	Sans
